

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko urriaren 25a. IX. urtea. 2.422. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosako Udalak «eskubide sozialak bermatuz» igo nahi ditu zergak

2013rako ordenantza fiskalen proposamenak azaldu dizkiete batzarrean herritarrei; murrizketarik ez egitea izango da lehentasunezko irizpideetako bat

Udalak hutsik dauden etxebizitzetxei erretegia aplikatzea proposatu du hiru helburu zehatzekin; datorren astean onartu beharko dituzte ordenantza fiskalak **02**



Nestor eta Imanol Aldazabal, Ibarrako Zelai erretegiaren ondoan. I. TERRADILLOS

## Aldazabal anaiak, arrantzaren goi mailan

Nestor eta Imanol Aldazabal ibartarrak oso gazte zirela hasi ziren arrantzan trebatzen; egun, onenen artean ari dira lehiatzen **05**

## Altzon egingo diren etxe tasatuetan izena eman daiteke

Udaletxean eman behar da izena, eta azaroaren 28a bitarte luzatu dute epea; Altzomuino kalean hamabi etxebizitzak eraikiko dituzte **06**

## Aresoko ondare ezezaguna erakusteko argazki lehiaketa

Azaroaren 26a baino lehen aurkeztu beharko dira argazkiak udaletxean; sariak ere izango dira **07**

## Tolosa gozoaren hiriburua izango da etzi, 'goxua' tarta protagonista dela

Gasteizko Sosoaga gozotegiko Luis Mari Lopez de Sosoaga eta berak sortutako pastela izango dira aurtengo Tolosa Goxuaren gonbidatuak; lau mila 'goxua' zati banatuko dituzte azokan **03**



Azokaren aurkezpenean Tolosako artisauek gozogileak izan ziren. I.G.L.

**Enara Goikoetxea** Zine zuzendaria

## «Jexux Mari Zalakain tolosarraren testigantza kontatzea aukeratu nuen»

'Barrura begiratzeko leihoak' filma Tolosako Leidor zineman estreinatuko dute etzi **04**

# Udalak errenergia aplikatzea proposatu du hutsik dauden etxeetan

2013rako ordenantza fiskalen proposamenak azaldu dizkiete batzarrean, hainbat herritarrei

## Itzea Urkizu

2013ko aurrekontuak prestatze bidean, zergak eta tasak igotzeko irizpideak proposatu ditu Tolosako Udalak, eta hutsik dauden etxebizitzetarako errenergia aplikatzea proposatu dute, besteak beste. Gai hau eztabaidatzeko antolatutako bigarren herri batzarra izan zen herenegungoa, eta proposamenak egin eta gero, lan talde dinamikan aritu ziren bertaratuekin, iritzia elkartrukatu.

Pasa den urriaren 3ko herri batzarrean, udalaren egungo egoera ekonomiko-finantzieroa aurkeztuz, egoerari aurre egiteko neurriak izan zituzten hizpide. Horrela, bi helburu argirekin amaitu zen lehen bilera hura. Batetik, murrizketarik ez egitea izango da lehentasuneko irizpideetako bat, «eskubide sozialak bermatu eta jarduera ekonomiko sustatu» nahi baitituzte. Era berean, «gehien duen ahalegin handiagoko egitea» ere jomugeta bat izango da, Lore Agirre zinegotziak nabarmendu zuenez.

Helburu horietara iristeko lehen pausoa, udal gobernuo kideek azaldu zuten moduan, sarrera arruntak handitzea izango da. Horretarako, zergak eta tasak berrikustea da, udalaren ustez, onena: «Eta ordenantza fiskaletan dago, aukera handiena».

Beraz, sarrera arruntak handitzeari garrantzia emango badiote ere, ezohiko sarrerak handitzea, inbertsioetarako kanpoko finantziarioa aurkitzea, nahiz «beste

aukerarik ezean», gastua murriztea, aukeren artean dauden neurriak direla azaldu dute.

**Etxebizitza hutsen errenergia** Ibai Iriartek eta Lore Agirrek, ordenantza fiskalak aldatzeko proposamenak egin zituzten, zergen zatia eta tasena banaka azalduz.

Zergen berrikuspenari dagokionez, lehenik eta behin Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga izan zuten hizpide. Udalaren proposamena, %3,2 igotzea da; KPlak urte amaieran, gutxi-gorabehera, jasango duen igogarekin bat dator hau.

Bide beretik, hutsik dauden etxebizitzetarako %100eko errenergia ordaintzea proposatu

**Zergak eta tasak «eskubide sozialak bermatu» igo nahi ditu udalak**

**Murrizketarik ez egitea lehentasuneko irizpideetako bat izango dela diote**

**Datorren asteko osoko bilkuran onartu beharko dituzte ordenantza fiskalak**

dute, hiru helbururekin: etxebizitza hutsak alokairuan merkaturatzea, erroldatu gabe dagoen jendea erroldatzea eta iruzur fiskala azalderatzea.

Honen aurrean, ordea, hutsik dauden etxebizitzetako batzuk salbuespen egoeretan egon daitezkeela eta, udal gobernuo kideek arautu daitezkeen zenbait salbuespen zehaztu dituzte: «Aldundiak eskatu digu, salbuespenak jarrita ere, zehatzak izatea.



Lore Agirre, Ibai Iriarte eta Inaki Irazabalbeitia, azken herri batzarrean. I. URKIZU

Dozenaka salbuespen daude, eta arautu gabe ezinezkoa litzateke lan administratiboan horrekin lan egitea».

Esaterako, gutxieneko bizgarritasun baldintzak betetzen ez dituztela frogatzen duten etxebizitza hutsak, nahiz errentan emateko erakunde publiko baten esku jarritakoak, salbuespenen artean sartzea proposatu dute. Halaber, ikasleei errentan emandako etxebizitzak ere zehaztutako salbuespen egoera horietan egotea proposatu dute.

Zahar etxeetan erroldatuta dauden pertsonen ere, ez lukete errenergia ordaintu beharko etxebizitza hutsa izateagatik. Herentziaz jasotzen diren etxebizitzak bi urtez salbuespen egongo lirateke, eta merkataritza jardueretarako erabiltzen diren etxebizitzetarako jabeen ere ez zaie errenergia aplikatuko.

Azkenik, etxebizitza hutsa Bizigune programara atxikirik baldin badago, salbuespenetat hartuko dute.

## Bestelako neurriak

Etxebizitza hutsen auzia arautzeaz gain, Tolosako Udalak bestelako neurri batzuk ere proposatu ditu, aurrekontuei begira.

Horrela, beraz, Jarduera Ekonomikoaren Gaineko Zerga zuzenean aplikatuko dute aurreratzean; milioi bat eurotik aurrerako fakturazioa duten jardueren ordainduko dute.

Zergekin jarraituz, Trakzio Meekanikoko Ibilgailuean Gaineko Zerga ere, KPlaren arabera igoko da, eta hiri izaerako lurren plusbalioa ere igotzea proposatu dute.

Azkenik, zerbitzu publikoetara jardueretarako dagozkien tasak, nahiz jabetza publikoaren okupazioen tasak ere KPlaren %3,2ko igogara jasango dute.

Aipatzekoa da, hondakinen tasa %5 igotzea erabaki dutela, «zerbitzuaren defizit historikoa orekatzearen, defizitarioren izaten jarraituko duen arren».

Ordenantza hauek guztiak, datorren astearteko osoko bilkuran onartu beharko dira, eta hurrengo pausoa izango da, aurrekontu osoa proposatzea.

Horretarako, azaroan beste herri batzarra deituko du udal gobernuak, eta abenduko osoko bilkuran onartu beharko dira 2013. urteko aurrekontuak.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## ↓ Etxebizitza hutsen errenergia

### PROPOSAMENA

**Hutsik dauden etxebizitzetarako %100eko errenergia aplikatuko dute, hiru helbururekin:**

1. Etxebizitzak alokairuan merkaturatzea.
2. Erroldatu gabeko jendea erroldatzea.
3. Iruzur fiskala azalderatzea.

### SALBUESPENAK

1. Gutxieneko bizgarritasun baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak.

2. Errentarako erakunde publikoen esku jarritako etxebizitzak.
3. Ikasleei errentan emandako etxebizitzak.
4. Zahar etxeetan erroldatutako pertsonen etxebizitzak.
5. Herentziaz jasotako etxebizitzak (bi urtez).
6. Bizigune programari atxikita dauden etxebizitzak.
7. Merkataritza nahiz lan jardueretarako erabiltzen diren etxebizitzak.

## → Laburrak

### Merkatu Txikia Nikaraguaren alde

**GIZARTEA** › Amarozko Auzo Elkarteak merkatu txikia antolatuko du, beste behin, Nikaraguaren alde. Bihar azken eguna izango da, eta 16:00etatik 19:00etara bitarte zabalik izango da.

### Medicus Mundiren erakusketa Aranburun

**GIZARTEA** › Datorren azaroaren 10era bitarte, Medicus Mundi erakundeak antolatutako erakusketa ikusgai izango da Aranburu jauregian. *Sexu eta Ugal-keta Eskubideak, eskubiderik gizatiarrenak* izenburupean, biztanleak sentsibilizatzea izango da helburua, panelen bidez. 17:30etik 20:30era zabalik izango da, asteartetik larunbatera bitarte.

### 'Istoriogileak' tailerra haurrentzako

**HEZKUNTZA** › Jolasen bidez istorioak sortzen eta eraikitzen ikasteko doako tailerra antolatuko dute, haur liburuetan. Guztira, 5 urtetik 7 urtera bitarteko 12 haurrek parte har dezakete, eta gutxieneko taldea osatzeko 6 haurrek eman beharko dute izena. Azaroaren 9, 16, 22 eta 30ean izango dira saioak, 17:30etik 19:00etara bitarte. Izena emateko: 943 69 74 62.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosa Goxuaren aurkezpena Donostiako La Perla jatetxean egin zuten; bertan izan ziren Luis Mari Lopez de Sosoaga, Hasier De los Rios eta Tolosako artisau gozotegietako ordezkariak. IGL

## ‘Goxua’ pastela izango da larunbateko Tolosa Goxuaren protagonista

Gasteizko Sosoaga gozotegian sortutako tartaren lau mila zati banatuko dituzte, etzi, Trianguloa plazan

**Imanol Garcia Landa**

Aurtengo Tolosa Goxua azokaren protagonista izen bereko pastela izango da: Luis Mari Lopez de Sosoaga gozogileak sortutako *goxua* postrea. Azokaren aurkezpena egon da Gasteizko Sosoaga gozotegiko arduraduna, Tolosako bost artisau gozotegietako ordezkariak eta Hasier De los Rios zinegotziarekin batera. Hain arrakastatsua izaten den azoka berezia etzi, larunbata, egingo da Trianguloa plazan. Bertan, bost artisau gozogileek lau mila *goxua* zati banatuko dituzte. Pastela bera nola egiten den ere ikusi ahal izango da azokan bertan.

Eceiza, Gorosti, Gorrotxategi, Gozona-Ibañez eta Saizar artisau gozotegi tolosarrek parte hartzen dute, udalarekin batera, Tolosa Goxua azokaren antolakuntza. Bakoitzak bere ohiko produktuak jarriko ditu salgai azokan eta zenbait berritasun ere izango dira. Esaterako, Gorrotxategi gozotegiak ontziratutako hainbat txokolate mota aurkeztuko ditu eta baita *xaxu-ka*o gozoa ere. Gozona-Ibañez gozotegiak hostopilez egindako teklatura aurkeztuko

du, aurki Tolosan izango den Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa gogoan. Horrez gain, bosgarren urtea bete duen Tolosako txurriak 2016 txurro banatuko ditu azoka egunean.

Guztira 18 postu izango dira azokan, eta Tolosakoez gain, Gipuzkoatik, Arabatik, Bizkaitik eta Iparraldetik etorritako artisau gozotegiak izango dira. Produktuak erostera etortzen direnak ere hainbat lekutatik etortzen direla azaldu dute antolatzaileek. Izan ere, hamar mila pertsona baino gehiago espero dituzte lau egun hauetan.

Gipuzkoako Esklerosi Anizkoi-tza Elkarteak, Ademgik, postu bat jarriko du eta euro bateko laguntzaren truke txokolatea eta pasta bat banatuko dute

### Sagar tarta lehiaketa

Ohikoa da Tolosa Goxua azokan herri lehiaketak egitea, eta aurtengoan sagar tarta lehiaketa egingo da. Edozeinek hartu dezake parte eta 10:00etatik 11:00etara

### Sagar tarta lehiaketan parte hartzen duten guztiek oparia jasoko dute

lehiakideek euren tartak Trianguloa plazara eraman beharko dituzte azokaren egunean bertan. Elena Arzak, Lourdes Rekondo, Jose Mari Gorrotxategi eta Luis

Mari Lopez de Sosoaga izango dira epaileak.

Sari banaketa 12:30ean izango da. Irabazleak Tolosako gozotegian gastatzeko 200 euroko balioa duen saria jasoko du eta bigarrenak 150 eurokoa. Lehiaketen parte hartzen duten guztientzat opari bat izango da Kalitatearen eskutik, eta horretaz gain, parte hartu duten guztien artean azokako produktuez osatutako lotenak zozkatuko dira. Parte hartzeko asmoa duenak izena aurrez ematea gomendatzen da 943 69 75 21 zenbakira deituz edo [feriak@tolosakoudala.net](mailto:feriak@tolosakoudala.net) helbidera idatziz.

### Urte amaiera arteko azokak

Larunbatero Tolosan izaten den azokaz gain, urte amaiera arte zenbait azoka berezi izango dira. Azaroaren 10erako, IV. Euskal Herriko Friso Txapelketa antolatuko dute ferialekuan. 60 buru izango dira lehiaketa, Euskal Herri osotik etorriko direnak. Horrekin batera, sektorearekin zerikusia duten hainbat postu izango dira.

Hurrengo ekitaldia Tolosako Babarrunaren Astea izango da, azaroaren 15etik 18ra. Besteak beste, azaroaren 17an, larunbata, Babarrunaren Azoka Berezia egingo da.

Abenduaren ere izango dira ekitaldiak. Txuletaren Festa abenduaren 7tik 9ra egingo da Zerkautsian, eta abenduaren 22an Gabonetako Azoka Berezia izango da.

**Luis Mari Lopez de Sosoaga** • Gozogilea

## «Gozotegiek indar handiagoa dugu batera arituta»

**I. Garcia Landa**

Luis Mari Lopez de Sosoaga gozogilea eta berak asmatu zuen *goxua* pastela izango dira aurtengo Tolosa Goxua azokaren gonbidatu bereziak, eta gonbidapen hori asko eskertu du. Sosoaga gozotegiko arduraduna izateaz gain, Arabako gozogileen elkarteak lehendakaria da Lopez de Sosoaga.

### Zein da zure lotura Tolosarekin?

Tolosara urte askotan etorri izan naiz turroia eta irasagar konfitura saltzera. Hori orain 40 urte inguru izango zen. Jose Mari Gorrotxategirekin harremana dut, nire aitonaren garaietatik. Hain justu, Gorrotxategi idatzi duen liburu batean, irasagar konfitura egitean ziprztindu egiten zela kontatzen du, eta nola nire aitona L formako makil luze bat erabiliz ez zela erreko aholkatu ziola jartzen du. Berarekin harremana beti oso gertukoa izan da.

### Tolosa Goxua azokan izanzara aurretik?

Bai, hiruzpalau aldiz izan naiz eta bi ordutan dena saltzen genuen. Gasteizko gozotegi guztietan baino genero gehiago saltzen genuen. Gero hozkailuekin lanean hasterakoan, Gasteiztik horiek ekartzea zailagoa zen. Azoka hasi zenean lan handia izaten genuen eta jendea hona ekartzea konplexua izaten zen.

### Zein da zuen gozotegiko produktu izarra?

*Chuchitoak* dira; nire aitona sortu zituen 1952an. Gureak bezalakoak ez dituela beste inork egiten esaten dute. Gozotegi bakoitzak du bere ukitua. Gure bonboiak, turroi trufatuak, trufak... ere eza-gunak dira.

### Goxua pastela beste hainbatek ere egiten dute. Gozotegien artean horikoa da besteek egiten dutena horietaz?

Asko bidaiatu dut, eta gero gozogileekin elkartzean, tertulietan... norberak dakiena erakusten du eta besteek dakitena jasotzen dugu.

### Gozogileen artean lehia izango da, baina zuk, Arabako elkarteak lehendakari gisa gozotegiak batera aritzea denen hoberako dela esan duzu.

Ikusi genuen kanpora joaten ginenen batera egin genezakeela bidea, eta gainera postreak sortzen hasi ginen, eta azkenean ekimen arrakastatsua egin ditugu. Pare bat ekitaldi egiten ditugu urtean zehar, hiriarekin batera, eta hori oso garrantzitsua da. Batek bakarrik ezin du, baina denak batera indar handiagoa dugu eta gero horrek entzutea ematen digu. Gasteizera joaten den guztiak, oroigarri gisa beti eramaten du gozotegietako produkturen bat.

**Enara Goikoetxea** » Zine zuzendaria

Bost euskal presoren inguruko 'Barrura begiratzeko leihoak' film dokumentala eskualdera etorri da. Asteburu honetan Tolosan ikusteko aukera egongo da, eta hurrengoan, Villabonan.

# «Gizarte honetan oso garrantzitsua da historia guztiak ezagutzea»

**Asier Imaz**

Ez da ez filma, ezta dokumentala ere. *Barrura begiratzeko leihoak* film dokumentala da. Telebistako erreportajeetatik ihesi, pantaila handirako egin dute. Bost zuzendariren artean egin dute ikusentzunezkoa, eta horietako bat Enara Goikoetxea (Hernani, 1973) da. Tolosako estreinaldian, hilaren 27an, zuzendaria Leidorren egongo da, ikusleen galderak erantzuten.

Espainiako Auzitegi Nazionala, Zinemaldia, diru laguntzak... polemiketarik haratago, bost pertsonaiaren historiak kontatzen ditu film dokumentalak, «ezagutu beharrekoak».

**Orain arteko ibilbidean, nolako kritika jaso dituzue?**

Aurre estreinaldia duela ia bi hilabete egin genuen, bi emanalditan. Lehenengoan, proiektua diruz lagundu duten herritarrekin izan zen, gaiak kontzientziatua dagoen jendearekin. Erreakzioa oso ona izan zen, hunkigarria. Ikuslearen eta filmaren artean konexio handia sortu zen. Bigarren pasean, gizarte eta kultura munduko jendea elkartu genuen, eta erreakzioak ere onak izan ziren. Filma ikusi ondoren, sortu den iskanbila jendeak ez zuen

**↓ Proiektzioak****TOLOSA**

■ **Hilak 27, larunbata.** Leidor zinemari 19:00etan. Bertan izango da filmaren zuzendarietako bat: Enara Goikoetxea. Proiektzioaren ondoren, mahai ingurua egingo dute.

■ **Hilak 29, astelehena.** Leidor zinemari, 20:30ean. Ikuslearen eguna. Urriko bonoa dutenek filma doan ikusteko aukera izango dute.

**VILLABONA**

■ **Azaroak 4, igandea.** Gurea zinemari, 19:30ean.

■ **Azaroak 5, astelehena.** Gurea zinemari, 21:30ean.

ulertzen. Bataren alde edo aurka egon zaitezke, baina norbaitek bere historia pertsonala kontatzen dizunean, gauza gutxi esan daiteke horren inguruan; kontakizun oso pertsonalak dira.

**Bost bizitza, bost historia eta bost zuzendari.**

Horrela da, baina independentzia guztiarekin jokatzeko aukera izan dugu bakoitzak. Hala eta guztiz, film bat egin nahi genuen, ondorioz, bakoitzak bere pertsonaia eta kontatzeko modua erabaki ondoren, elkarrekin erabat kontaktuan egon gara. Uste dut lorpen nagusienetako bat hori izan dela, bost kontatzeko era izan arren, filma bakarra eta osoa dela.

**Nola aukeratu zenituzten bost proiektuak?**

Hasierako prozesu horretan ni ez nintzen egon. Argi zuten, ordea, bost historia horiek bost errealtate azaldu behar zituztela: batzuk politikoagoak, besteak ETA-rekin lotura zutenak, barruan zeudenak, kanpoan zeudenak... Ni proiektuan sartu nintzenean, 18/98 sumarioaren inguruko historia gelditzen zen, eta hori hartu nuen. Ondoren, Jexuxmari Zalakain tolosarra aukeratzea erabaki nuen, eta azkenik, bere lagunak eta bera konbentzitzea tokatu zitzaidan.

**Barrura begiratzeko ari ondoren, behin proiektua amaituta, zer gelditu zaizu?**

Oso zaila da barruan dagoen norbaiti buruzko historia bat egitea, sortzen diren loturak oso indartsuak direlako. Filma bukatzean, bera barruan gelditzen da, eta zu kanpoan, zure egunerokotasunera itzuli behar zara, nolabait, eta oso arraroa suertatzen da. Izugarri konplizitate sortu dela jabetzen zara, eta gure kasuan, elkar fisikoki ikusi gabe; niretzat oso hunkigarria izan da. Proiektua amaitu da eta beste lan batzutan hasten zara, eta bere presentziazirik gabe... Bostoi gauza bera gertatu zaigula uste dut.

**Bere testigantza nola ateratu duzue espetxetik?**

Gehienbat telefonoz, eta baita gutun bidez ere. Horrez gain, zor-

tea izan dut, 2006ko artxiboko bere irudi batzuk aurkitu baititut. Bere testigantzarekin, beraz, pantailan bera egotea lortu dut. Beste zuzendari batzuen kasuan, familiak zituen irudiak erabili dituzte, edo pertsonaia kanpoan zegoenez, berarekin aritu dira lanean. Azken emaitza ikusi ondoren, gauza bat esan dezaket, espetxean egon edo kalean egon, guztiak oso presente daude.

**Proiektua aurrera eramaten ari zinen bitartean, eta baita ondorenean, izan al duzu kontaktu ezin zitekeen historia bat kontatzen ari zinenaren sentsazioa?**

Kontatu behar den historia bat kontatzen ari nintzenaren sentsazioa izan dut, eta horregatik nago proiektu honetan. Benetan iruditzen zait zati hori kontatu egin behar dela, gure gizartean aurrera pausoak ematen jarraitzeko. Egia da badela nolabait kontaktu ezin denaren zerbait hor inguruan, eta egunero zaude horrekin inguratuta, baina nire ustez, garaiak garaiak dira, eta historia guztiak ezagutu behar ditugu. Gu bizi garen gizarte honetan gainera, hori oso garrantzitsua da.

**'Barrura begiratzeko leihoak' aurrera ateratzeko dirua, nondik lortu duzue?**

Hasiera batean laguntza bono batzuk ateratu genituen, eta horien bitartez jaso zen zati bat. Gero, pertsonaia ziren herrietako udal txeeetara, eta foru aldundietara joateko ideia ateratu zen, diru laguntza eske. Udan eskandalu moduko bat egon zen horren kontura, eta Bilduren jarraipena arriskuan jarri nahi izan zuten. Hori ikusita, eskariak atzera bota genituen. Hala eta guztiz ere, horri esker, hurrengo bi asteetan 40.000 euro jaso genituen jendeak bidaltuta. Filmaren aurka joateak ez zuen ez buru eta ez hankarik, eta gizarteak hori ulertu zuen.

**Eskualdeko herritarrek zer ikusiko dute zinean?**

Merezi du ikustera joateak, inoren alde edo aurkako ezer ez delako. Pertsona batzuen historiak kontatzen ditu, eta historiak entzutea beti da aberasgarria.



JON URBE/ARGAZKI PRESS

## Azken ostiraleko elkarretaratzeak, gero eta gehiago

Altzo eta Bidegoiango elkarretaratzeekin, Tolosaldean eta Leitzaldean hemeretzi mobilizazio egingo dira

**↓ Azken ostirala****BIHAR**

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Altzo.** 20:00etan, plazan.
- **Amezketeta.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 19:00etan.
- **Berrobi.** 19:30ean.
- **Berastegi.** 19:30ean, plazan.
- **Bidegoian.** 19:00etan Goiazko autobus geltokiaren ondoan.
- **Ibarrak.** 19:30ean.
- **Irura.** 19:30ean, plazan.
- **Gaztelu.** 20:30etan, plazan
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leaburu.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leitza.** 20:00etan.

**A. Imaz**

Herrirak urriko azken ostiralean, bihar, elkarretaratzeak antolatuta ditu Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan. Bidegoiandik eta Altzotik azaldu dutenez, mobilizazioekin bat egingo dute, eta ondorioz, guztira, 19 herritan egingo dituzte elkarretaratzeak euskal preso eta iheslarien eskubideen alde.

Bidegoiandarrak Goiazko autobus geltokiaren ondoan elkartuko dira, 19:00etan, eta altzotarrak herriko plazan, 20:00etan. Herritarik herritarrei deialdiekin bat egitea eskatu diete.

Nestor eta Imanol Aldazabalek garaipen ugari eskuratu dituzte Gipuzkoako, Euskadiko nahiz Espainiako txapelketetan; egun goi mailan ari dira lehian, eta Munduko Txapelketan aritzeko txartela lortu dezakete.

# Goi mailako arrantzaleak


Iñigo Terradillos Ibarra

**G**aztetxoak zirenetik denbora librearen zati handi bat arrantza egiteko baliatu izan dute Nestor eta Imanol Aldazabal anaia bikiek. Pixkana maila igoz joan dira, Espainiako goi mailan lehiatzera iritsi diren arte. Txapelketetan lortzen dituzten puntuen arabera, mundu mailako txapelketan lehiatzera ere iritsi daitezke 15 urteko bi ibartarrak.

Osabak animatuta hasi ziren arrantzan, eta sei urte zituztela jokatu zituzten lehen txapelketak: «Lehen esperientzia hura asko gustatu zitzaigun, eta jarraitu egin genuen, eta txapelketa gehiagotan parte hartzen hasi ginen», dio Nestor Aldazabalek. Tolosan hasi ziren lehiatzen, eta handik Alegiara, eta Hernanira pasa ziren. Bai barboetan bai eta amuarrainetan garaipen asko lortuak dituzte. «Parte hartzen dugun txapelketa guztietan anaia batek ala besteak irabazi izan dugu zerbaite», dio Imanolek.

Euren maila ona ikusita, Gipuzkoako Arrantza Federazioko lehendakaria den Martin Lasak Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan parte hartzera bultzatu zituen. Gipuzkoakoan lehen aldiz parte hartu zutenean, bi anaiek Euskadiko txapelketan lehiatzeko txartela lortu zuten.

Euskadikoan Nestorrek bigarren egin zuen, eta Espainiako txapelketan lehiatzeko sailkatu zen. Espainiakoan hamargarren geratu zen, eta horrela lortu zuen goi mailara igotzea, 13 urterekin. Imanol aurten sailkatu da Espai-



Imanol eta Nestor Aldazabal ibartarrak Ibarako Zelai errekaaren alboan. I. TERRADILLOS

niako txapelketarako, eta han hamaseigarren geratu denez, hau ere, datorren urtean goi mailan lehiatuko da. Anaia Nestor bederatzigarren postuan geratu da Espainiakoan, eta taldeka, urrezko domina eskuratu dute biek, Euskadiko taldearekin.

Bost kidek osatzen dute taldea, baina txapelketan lau arrantzalek parte har dezakete: «Kapitainak erabakitzen du nork jokatzeko duen, arrantzale bakoitzaren mailaren eta bilakaeraren arabera», dio Imanolek. Hain zuzen ere,

Imanolek, Espainiako Txapelketan amuarrainik handiena arrantzatu zuen. «Oso pozik gaude bertan lortutako emaitzarekin», diote biek.

## Goi mailan, lehian

Espainiako txapelketan lehiatzen diren arrantzale guztietatik soilik 16 ari dira une honetan goi mailan lehiatzen. Bada urtean zehar burutzen diren txapelketetako emaitzen arabera, puntuak bartzuten dituzte, eta gehien lortzen dituzten hiru arrantzaleek Munduko Txapelketarako txartela lortzen dute. Beste bi arrantzale gehiago ere dituzten lorpenen arabera aukeratuak izaten dira.

18 urtez azpiko bost arrantzale gipuzkoar ari dira une honetan goi mailan lehiatzen. Eneko Lasa alegiar arrantzalea ere talde horretan zegoen, baina 18 urte beteak ditunez, beste maila batean lehiatzea dagokia aurrerentzean. «18 urtetik gora, goi maila galtzen duzu, eta berriro lortzeko, txapelketen emaitzen arabera sailkatu behar duzu», diote. 18 urtez gorakoentzat, mundu mailako txapelketaz gain, Europakoa ere bada-goa.

## Luzaroen jarraitzeko asmoa

Arrantza gutxiengoan kirola den arren, ez dute Imanol eta Nestor Aldazabalek berehalakoan uzteko asmoa: «Asko gustatzen zaigun kirola da arrantza, eta egun

egiten dugun moduan, entrenatzen eta txapelketetan jarraitzeko asmoa dugu». «Gainera, erreka etxearen aldamenean dugu, beraz, ez dugu urrutira joan beharrik entrenatzeko», gehitzen du Imanolek.

Dena den, kexu dira Zelai errekek gaur egun duen egoeraz: «Duela hilabete gutxi isuri bat egon zen errekan, eta ehunka

## Gastuak aktore bezala egindako lanekin eta udalaren laguntzaz ordaintzen dituzte

## «Gutxiengoan kirola denez, arrantza ez da merezi duen bezala kontuan hartzen»

arrain hil ziren, eta barboak bota dituzten arren, ez da gauza bera», dio Imanolek. «Txapelketetan amuarrainak arrantzatu behar izaten dira, eta ez barboak, beraz, ezin duzu ondo entrenatu», gehitzen du. Zelai errekan ez bada, Araxesera edo Leitzaranera ere joan ohi dira.

Asteburuak baliatzen dituzte entrenamenduetarako. «Denbora asko eskatzen duen kirola da, eta goiz edo arratsalde oso bat behar izaten da, materiala prestatu, arrantza lekura joan eta arrantzatzeko».

Izan ere, arrantzaren teknikak ondo ikasi eta menperatzeko, gogor entrenatzen dute bi anaiek. «Badira arrantzari behar adinako garrantzia ematen ez diotenak, eta ondorioz ez dute batere entrenatzen. Guk, ordea, guztiz kontrakoa egiten dugu. Txikitatik asko arrantzatu izan dugu, eta horrela iritsi gara pixkana gauden mailara», azaldu dute. «Espainiako txapelketara goazenean, esaterako, nabari da, nork dakien arrantzatzen, eta nork ez».

Arrantzale horiek bezala, gizaratean ere ez dutela beraiek egiten duten esfortzua, eta dituzten lorpenak kontuan hartzen diote: «gutxiengoan kirola da, eta ez da behar bezala baloratzen».

## Gastuak euren esfortzuekin

Gustuko duten kirola egiteak duen gastua euren gain hartzeko esfortzua ere egiten dute Aldazabal anaiek. Eta ezin esan daiteke kirol merkea denik, urte osorako arropa eta materialaren kostua 3.000 eurora iritsi baitaiteke.

Ibarako Udalak materialaren zati berrirako laguntza ematen dute. Gainerakoa ordaintzeko euren beste afizioa denean irabazitakoa baliatzen dute. «*Mugaldekoak* filmerako kasting bat egin genuen 12 urte genituela, eta aukeratuak izan ginen, eta *Urte berriri on amona* filmean ere parte hartu dut nik», dio Imanolek.

© ibarraldea@hitza.info

**maroko**

IKUSI koloreak  
BIZI kultura  
IKASI argazkilaritza

www.mauka.eu  
laster...

**ADI!**  
Plaza mugatuak  
15 pertsona bakarrik

# Azaroaren 28a arte zabaldu dute izena ematea Altzoko etxebizitza tasatuetarako

Hamabi etxebizitza eraikitze asmoa dute; zozketa abenduaren 4ean egin nahi du udalak

**Imanol Garcia Landa** Altzoko

Altzoko Udalak azaroaren 28a arte luzatu du 12 etxebizitza tasatuetarako izena emateko aukera. Eneko Agirrezabal zinegotziak azaldu duenez, «gure asmoa da ahal duten jende gehienak izena ematea. Altzok azpiegiturak badiu, eskola eta haur eskola, esaterako, eta gazteentzat aukera ona da herrira bizitzera etortzeko. Horregatik jende gaztea animatzen dugu izena ematera». Hain justu, herrian zenbait gazte daudela ikusita, etxebizitza tasatuak bultzatzea erabaki zuen udalak.

Plan orokorra berrituz erabiltzeko etxebizitza gehiago egiteko aukera zabaldu zuten. Bi eraikin aurrekusten dira, bakoitza bi solairukoa eta solairu bakoitzean hiru etxebizitza izango dira. Herrigunean egingo dira, Altzomuiño kalean.

Etxebizitzaren ezaugarriak zehaztuta daude: hiru logela izango dituzte, sukaldea, egongela, bi bainugela eta terraza. Guztira erabilgarri 80 metro karratu izango dituzte. Behe solairuan garaje itxiak izango dira, eta bakoitzak 36 metro karratu erabilgarri izango ditu. Prezioa zehaztuta dago: 186.000 euro gehi BEZa izango da. Etxebizitzi buruzko informazio gehiago jasotzeko, fatxadaren itxura eta erabiliko diren materialak esaterako, udaletxera joan daiteke.



Etxebizitzak egiteko asmoa duten eremua. E. MAIZ



Solairu bakoitzean egongo diren hiru etxebizitzaren planoak. HITZA

Izena emateko zerrenda interesatuta duten guztiarentzat irekita dago, hau da, herrikoek gain, beste udalerrietakoek ere izena eman dezakete. Horretarako Altzoko udaletxera joan edo 943 65 24 13 telefono zenbakira deitu daiteke. Derrigorrezko baldintza izena emateko etxebizitzarik ez izatea da. «Gure asmoa urtea bukatu baino lehen hau guztia lotuta izate

tea da», azaldu du Agirrezabalek. Zozketa abenduaren 4ean egin nahi dute, eta bertan lehentasuna altzotarako izango dute.

Prozesua espero bezala joaten bada, datorren urtearen hasieran obrak abian jarriko direla esan du Agirrezabalek. «Obrek urtebete eta urte eta erdi artean iraungo dute, enpresa eraikitzaileak azaldu duenez», gaineratu du.

## Konposta egiteko ikastaroak antolatuta dituzte Alegian

Udala eta herriko Zero Zabor taldea dira antolatzaileak; izena kultur etxean eman behar da

**I. Garcia Landa** Alegia

Alegiako Udalak eta herriko Zero Zabor taldeak materia organikoe-tatik abiatu eta konposta egiteko ikastaroak antolatuko dituzte.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «etxeko edota baratzeetako hondakinak (materia organikoa) tratatzeko sistema naturala da konpostajea». Sistema hori «merkea, ekologikoa eta osasuntsuena» dela azaldu dute ikastaroen bultzatzaileek.

Sistema hori «oso erraza» dela gaineratu dute, baina baita zenbait teknika eskatzen dituela ere. Teknika horiek erakutsiko dituzte ordu gutxitan egin nahi diren ikastaro horietan.

Hogei lagun inguruko taldeak osatu beharko dira ikastaroa martxan jartzeko eta ondoren zehaztuko da zein egun eta orduetan izango diren. Izena kultur etxean eman beharko da edo bertako 943 65 46 98 telefono zenbakira deituztatzaileek.

Ikastaroa doakoa izango da, eta bertan parte hartzen dutenei plastikozko konpostagailuak eskuragarri jarriko zaizkie, gero ikasitako praktikan jarri ahal izateko.

## Intxurre elkarteak zazpi partida dituzte etxean asteburuan

Zazpi Iturri elkarteak Amezketan jokatu dituzten sei partidetatik bost irabazi dituzte

**I. Garcia Landa**

Intxurre elkarteak pilotariak zazpi partida jokatu ditu asteburu honetan etxean. Horietako lau Alegian izango dira, bihar, 19:00etan. Binakako kadete mailako lehen mailan Intxurrek Aurrera Saiaz 2 izango du aurkari. Ondoren lehen urteko infantil mailan, Intxurre 1 Aurrera Saiaz 2ren aurka lehiatuko da. Gero, infantil mailako bigarren urtekoetan, Intxurre 4 Lapke 2ren aurka ariko da eta Intxurre 3 Aurrera Saiaz 1en aurka.

Intxurrekoen etxeko beste hiru partidak Ikaztegiaren jokatu dituzte, igandean, 11:00etan hasita. Kadete mailako hirugarren mailako bi partida izango dira: Intxurre 2 Hernaniren aurka eta In-

txurre 1 Bergararen aurka. Azkenik, lehen mailako nagusien mailan, Intxurrek Antigua 1 taldea izango du aurkari.

**Asteburu emankorra**

Bere aldetik, Zazpi Iturri elkarteak etxean, Amezketan, aurreko asteburuan jokatu zituzten sei partidetatik bost irabazi zituzten. Hala, eskuz banaka infantiletan, Zubeldiak (Zazpi Iturri) 2-0 irabazi zion Zeberiori (Aurrera Saiaz). Eskuz banaka kadeteetan, Erauskin (Zazpi Iturri) 18-6 gailendu zitzaion Egigureni (Txapa Gain). Eskuz banaka gazteetan, Irribarriak (Zazpi Iturri) 22-7 irabazi zion Ormazabali (Aurrera Saiaz). Eskuz banaka nagusietan, Arzelusek (Zazpi Iturri) 22-14 irabazi zion Ugalderi (Oiarpe). Eskuz banaka kadeteetan, Azkonobietak Garmendia bikoteak (Lazkao) 22-6 irabazi zioten Artola-Zabalari (Zazpi Iturri). Azkenik, eskuz banaka kadeteetan, Zubeldia-Zabala (Zazpi Iturri) 22-19 irabazi zioten Oñederra-Garateri (Azkoitia).

## Baionako manifestaziora joateko autobusa antolatuta dute

**I. Garcia Landa**

Azaroaren 10an Baionan manifestazioa antolatuta dute, 15:30ean, *Euskal presoan eskubideen alde* lelopean. Hori dela eta, Berrobi, Elduain eta Berastegiko udalek autobus zerbitzua antolatuta dute bertara joan ahal izateko. Interesatuek edozein udaletxetan izena eman ahal dute azaroaren 6a aurretik. Irteera ordua eguerdiko 12:00etan izatea aurrirakusten da. Zerbitzuaren kostua 10 eurokoa da, baina jubilatuta, ume eta langabetuek dohainik izango dute.

## Tolosako taberna batean eta Irurako lantegi batean lapurtu dute

**I. Terradillos**

Tolosako Alliri auzoan lapurreta egin zuten asteartea eta asteazkena bitarteko gauean. Hain zuzen ere, bertako kafetegi batean sartu ziren lapurrak gauean, eta materiala eta dirua eraman zuten bertatik. Ertzaintza lapurreta irabaztu zen tabernan izan zen, eta ikerketa zabaldu zuten.

Halaber, Ertzaintzak adierazi zuenaren arabera, gau horretan beste lapurreta bat izan zen eskualdean, Irurako lantegi batean hain zuzen.

## → Laburrak

### Odola emateko aukera dute bihar alegiarrek

**ALEGIA** › Alegiako odol emateko beste hitzordu bat izango dute, bihar. Ohi bezala, sendagilearen etxean eman ahal izango dute odola, 19:00etatik aurrera.

### Arantxa Bakerorentzat izan da zozketaren saria

**ZIZURKIL** › Zizurkilgo armarr berria aukeratzeko euren irtzea eman duten 200 herritarren artean zozketa egin dute eta sariduna Arantxa Bakero izan da. Bi laguntzako afaria jaso du. Bide batez, armarr berria lantzeko lantaldeak eskerrak eman dizkiete herritarrei lanke-tan parte hartzeagatik.

## Bihar hasiko da aurtengo zine denboraldia Leitzako zineman

Helduentzat 'Intocable' filma eta gaztetxoiei zuzendutako 'The wish fish' emango dute, bihar eta igandean

**Iñigo Terradillos** Leitza

Atsedendia ostean, bihar ekingo diote zine denboraldiari Leitzan. Ohi bezala, ostiral gauean eta igande arratsaldeetan emango dituzte filmak Leitzako zineman, eta hauek helduei zein gaztetxoiei zuzendutakoak izango dira.

Astero helduentzako film bat eskainiko dute, eta hilean behin, azken asteburuan txikienei zuzendutako pelikula bat izango da ikusgai. Orduetgia eta salneurria iragan denboraldiko bera izango da. Hau da, ostiraletan 22:30ean eta igandeetan 19:30ean izango dira helduen saioak, eta gaztetxoena, berriz, igandeetan,

17:00etan. Helduentzako filmak ikusteko 6 euro ordaindu beharko da, eta txikienezko pelikulak ikusteko, 3 euro.

Maria Uriarte leitzarra arduratzen da filmen proiektzioen koordinazioaz. Leitzako Udaleko kultur sailak pelikulen alokairua ordaintzen du, eta berak egiten du aukeraketa. Uriartek azaltzen duenez, «denetarik» sartzen saiatzen da, «beti ere, oreka mantenduz, eta filmen gutxieneko kalitatea maila ziurtatuz». Hala, «arrakasta handia izaten duten film komertzialetatik gai zehatzen ingurukoak diren film ez hain ezagunetara, denetarik izaten da Leitzako zineman». Haurrentzako filmen aukeraketaz, berriz, guraso elkarteak arduratzen dira.

### Hasteko, *Intocable* filma

*Intocable* filmak irekiko du aurtengo denboraldia. Eric Toledano eta Olivier Nakache dira zuzendariak. Istripu baten ondorioz elbarririk geratu den aristokrata baten

istorioa kontatzen du. Auzo marginal batean bizi den etorkin bat kontratatuko du etxean lagun diezaion, eta nahiz eta euren bizi-moduak oso desberdinak izan, laguntasun handia sortuko da bien artean.

Asteburu honetan gaztetxoiei zuzendutako *The wish fish* pelikula ere ikusi ahalgo da. Gorka Vazquez eta Iban Onekak zuzendutako animaziozko lan hau. Arraia gorroto duen Opil izeneko mutiko baten abenturak kontatzen ditu. Baloreen transmisioaz ari da, batez ere, elikaduraz.

Bada, bihar eta igandean izango dira film horiek ikusgai. Datoren astean, hau da, azaroaren 2an eta 4an, Valerie Donzelliren *Moonrise Kingdom*. Azaroaren 16an eta 18an, berriz, Euskal presoenguruko *Barrura begiratze*ko *leihoak* dokumentala emango dute.

## Argazki lehiaketa egingo dute Areson, ezezaguna den ondarea erakusteko

Ondare naturalari eta historikoari eta paisaiei egin behar zaizkie argazkiak; azaroaren 26a arte aurkez daitezke

**I. Terradillos** Areso

Areson ezezagunak diren herriko txoko edo ondareak aurkitu nahian dabilta, eta horretarako argazki lehiaketa jarri dute martxan. Edonork parte hartu ahalgo du, eta azaroaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira argazkiak Aresoko udaletxean.

Argazkiak ondorengo gaiei egin behar zaizkie: ondare naturalari, ondare arkitektoniko edo historikoari eta paisaiei. Parte hartzaile bakoitzak bost argazki aurkeztu beharko ditu eta gutxienez gai bakoitzetik argazki bana egon beharko du.

Argazkiak Aresokoak izan be-

har dute, edo Areso ingurukoak, herri gunetik oinez joateko distantzi batean ateratakoak.

Udaletxera bidali behar dira argazkiak, e-mailez, [aresokoudala@ibercom.com](mailto:aresokoudala@ibercom.com) helbidera. Aresoko Euskararen Egunean jarriko dituzte argazkiak ikusgai eta egun horretan epaile lana egingo dutenek aukeratuko dute irabazlea.

Herrian adierazgarri izatea, eta ezagunak izan ez daitezkeen ondareak hartuko dira kontuan, batez ere.

Bestalde, sariak ere jasoko dituzte irabazleek. Batetik, irabazleak Leitzako Iruso jatetxean bi lagunentzako afaria eskuratuko du, eta bigarren geratzen denak, bi lagunentzako euskararen egunerako bazkarirako sarrerak. Horrez gain, parte hartzaile guztien artean euskararen egunerako bazkarirako bi sarrera zozketatuko dituzte.

● [leitzaldea@hitza.info](mailto:leitzaldea@hitza.info)

### Irudia ◊ Ibarra



## AUTO ISTRIPUA IBARRAN

Ibarrako Euskal Herria Kalean bi adineko pertsona, gizoneko bat eta emakumezko bat, harrapatu zituen herenegun auto batek. Montes baserriko baratzeen parean gertatu zen istripua zebra-bide batean. Bi pertsonak zauriturik, baina arriskutik kanpo, eraman zituzten ambulanzian Asuncion klinikara. JON MUJICA

### Irudia ◊ Ibarra



## ETXEBIZITZEN INGURUKO BILERA

Ibarrtar ugari hurbildu zen herenegun kultur etxera, Beheko Blden eraiki dituzten gazteentzako etxebizitzetako inguruko batzarrera. Etxebizitzetako interesa dutenek galdetgia bete beharko dute, eta urriaren 31 baino lehen aurkeztu, udaletxean edo kultur etxean. Udalak emaitzak aztertu ondoren zehaztuko du esleitzeko prozedura. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoetardea:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK

**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Tolosa.** Uzturrera mendi txango eginez hasiko dituzte Larramendi auzoko jaiak. 09:00etan abiatuko dira mendira, eta 12:00etan, Plan B-n, hamaiketako egingo dute. 22:00etan, Sua filma eskainiko dute, eta aire librean izango da. 00:00etatik 03:00etara karaoke egingo dute.  
■ **Tolosa.** Amaroitz Auzo elkar-teak Nikaraguaren aldeko merkatu txikia antolatu du. Ostirala bitarte, 16:00etatik 19:00etara egongo da zabalik, Amaroitzko mediku gelaren ondoko aretoan.

**ZINEA**

■ **Tolosa.** Zine forumean, 19:15ean eta 21:45ean, *The Deep Blue Sea* ikusi ahal izango da, jatorrizko bertsioan.

**ERAKUSKETAK**

■ **Alegia.** Jose Enrike Zeberio tolosarraren margolanak ikusi ahal dira Alegiko erretirodunen tabernan hilaren bukaera arte.  
■ **Orexa.** Kultur Hamabostaldia irauten duen bitartean *Mundu batetik* izeneko argazki erakusketa ikusi ahal da, udaltxeko ganbaran.  
■ **Tolosa.** Mariona Masgrauren lanak biltzen dituen *Bidaia bat txotxongiloen mundura* erakusketa ikusi daiteke Topic zentroan.  
■ **Tolosa.** Tolosako Aranburu jauregian Box.A elkartearen *Pornografia* erakusketa azaroaren 9a bitartean, eta Medicus-mundi Gipuzkoak antolatutako *Sexu eta ugalketa eskubideak, eskubiderik gizatiarrenak* erakusketa ikusi ahal da azaroaren 3a arte.



Tolosako udal ordezkariak egin zieten harrera udaletxean. ITZEA URKIZU

# Hego Koreako enpresariak eta politikariak etorri dira, Tolosaldera

Hamaika pertsonako taldea etorri da, eta Tolosako udaletxean egin diete harrera; enpresak bisitatu dituzte

**Eneritz Maiz** Tolosa

Hego Koreako enpresariak eta politikariek osatutako talde bat Tolosaldera etorri da. Hamaika lagun egin dute eskualderako bidaia, eta Tolosako udaletxean egin zieten harrera bertako udal ordezkariak, atzo. Tolosaldea Garatzeneko ordezkariak ere bertan izan ziren.

Hego Koreako Gyeongsangbuk-Doetik etorri dira. Ez dira lehen aldiz etorri, duela hiru bat urte izanak ziren Tolosaldean. Eskualdeko enpresak bisitatu nahi izan dituzte.

**Lehiberriren ekimena**

Lehiberri proiektuaren barruan hasitako ekimena da honako hau, eta Tolosaldeko udal ordezkariak eta enpresariak 2010. urtean egin zuten lehen bidaia Hego Korea. Orduan, hemengo hamar bat enpresa joan ziren bertara, bertako industria ezagutzera. Urte hauetan sakondutako harremanaren ondorioz iritsi dira berriro ere Tolosaldera.

Harremanari eutsi egin nahi diote eskualdeko ordezkariak, eta batez ere, eskualdean energia berriztagarrien inguruan egon daitezkeen negozioak aztertuta nahi dituzte.

Udaletxean egindako harreraren informazioa elkartrukatatu dute. Ondoren, eskualdeko hainbat enpresa bisitatu dituzte benetan korrearrek interesa agertu dutelako.

Etorkizunari begiratu, bazkide interesgarriak izan daitezkeela uste dute eskualdeko ordezkariak. Hego Korea herrialde oso aurreratua dela diote, eta krisi garai hauetan onurak ateratzeko baliatu nahi dute bisita.

o tolosaldean@hitza.info

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar, kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien etairizien erantzukizunik.

**Agurrak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Urriak 28 • Igandea  
12:15  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
**Mac Croc Fuenlabrada**  
saskibalo partida

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



sarrerak